

FVDA-KEEF LIZENTZIEN ZIRKULARRA

2025/2026

Norentzat: Kirol Erakundearen eta Lurralde Federazioaren Lehendakaritza

Nork: Kirol Egokituaren Euskal Federazioaren Lehendakaritza

Gaia: Lizentzien jaulkitzea



Kirol Egokituaren Euskal Federazioa
Federación Vasca de Deporte Adaptado

AURKIBIDEA

	Orria
- Erakundeen inskripzioa.....	3
- Lizenziak berritzeko prozesua.....	4-5
- Lizenzia berriak izapidetzeko prozesua.....	6-7
- Bigarren kirolak.....	8
- Federazio-lizentzien informazio orokorra.....	9-11
- Jolas-txartelak.....	12
- EEFFetan homologatutako lizenziak.....	13-14
- Kontuan hartu beharreko beste informazio bat.....	15
- Datuen tratamenduari buruzko informazioa.....	16-17
- 2024-2025 denboraldiko lizentzien prezioak.....	18
- 2024-2025 denboraldiko lizentzien dokumentazioa.....	19

ERAKUNDEEN INSKRIPZIOA

Denboraldi honetarako lizentziak izapidetu nahi dituzten kirol-erakundeek/klubek Kirol Egokituaren Euskal Federazioan atxiki beharko dute aurtengo denboraldirako; erantsitako inprimakia bete beharko dute (alta berriak eta aldaketak bakarrik) eta 55,00€ ordaindu.

*** Faktura jaso arte itxaron beharko da ordainketa egiteko.**

LIZENTZIAK BERRITZEKO PROZESUA

“TEKNIKARIAK”

2025-2026 denboralditik aurrera, “Teknikaria” estamentua hautatzeko aukera desagertu da.

Berritze guztiek zuzenean adierazi beharko dute “Estamentua” atalean zein postu beteko duten, eta, beharrezkoa izanez gero, titulazioa erantsi beharko dute.

KIROLARIAK, ARBITROAK eta EPAILEAK

Lizentzia berritzea aurreko denboraldian Kirol Egokituaren Euskal Federazioarekin izapidetu duten eta denboraldi honetan inolako aldaketarik izan ez duten guztientzat izango da. Klubetik eskaera egiteko prozesuak honako hau izan beharko du:

1. Online aplikaziotik (www.kirol-lizentziak.com) edo web orritik (www.deporteadaptadoeuskadi.org), klubaren erabiltzailea eta pasahitza sartu ondoren, “SARRERA” ataletik aurreko denboraldia hautatu eta joan den denboraldiko federatuen zerrenda lortzen da. Berritu nahi den lizentziak aurreko denboraldiarekin alderatuta **aldaketarik ez badu**, “BERRITU  ” botoia sakatuko da.

2. Oraingo denboraldia aukeratuta, berritze horiek agertuko dira “Aurreinskripzioa” egoeran. Lizentzia bakoitzaren datuak osatu eta dokumentuak zuzenak direla eta indarrean daudela berrikusi ondoren (GARRANTZITSUA DA BERRIKUSTEA NAN/AIZ ZENBAKIA ZUZENA DELA), “BIDALI  ” botoia sakatu beharko da, lizentzia berritzearen egoera “Ordaindu gabe” egoerara pasa dadin.

3. Lurralde-federazioak izapidetze-prozesua has dezan, klubak posta elektronikoz bidali beharko dio izapidetu beharreko lizentzien zerrenda.

4. **Lurralde-federazioak dokumentazioa berrikusiko du**, eta, zuzen egonez gero, lizentzia berritzeko eskaera baliozkotuko du, “Ordainduta” egoerara pasatuz. Ondoren, posta elektronikoz jakinaraziko dio Kirol Egokituaren Euskal Federazioari lizentzia zuzen dagoela eta berritzeko prest dagoela, FVDA-KEEFak berritzea amai dezan, “Tramitatuta” egoerara pasatuz.

*Eskabidean akatsen bat badago, lurralde-federazioa arduratuko da akatsa hautemateaz eta klubari jakinarazteaz, hark beharrezko zuzenketak egin ditzan eta lurralde-federazioari berriro jakinaraz diezaion dagoeneko zuzendu dela. Lurralde-federazioak zuzen eta berrikusita, tramitazioa amaitzeko eskatu beharko dio FVDA-KEEFri.

5. FVDA-KEEFak ostegunetan emango die alta aseguruan federatutako pertsonen, eta emailaz bidaliko dizkie lizentziak klubei. Kudeaketa horiek egiten diren bitartean, aplikazioan “Tramitatuta” agertuko dira.

*Epez kanpoko berritzeek (2024ko martxoaren 1etik aurrera) 3 €-ko kostu gehigarria izango dute.

6. Guztia posta elektronikoz fakturatu eta bidaliko zaio kirol-erakundeari.

***GARRANTZITSUA:** Lizentzia berritzera ematea eskatzen da, baldin eta lizentziaren ezaugarriak aldatzen ez badira, lizentzia-zenbaki bera mantentzeko.

Aldaketaren bat egin nahi izanez gero, lizentzia berri gisa izapidetu behar da, edo Kirol Egokituaren Euskal Federazioarekin hitz egin.

LIZENTZIAK BERRITZEKO DOKUMENTAZIOA

- **Kirol-medikuaren ziurtagiria** (kirolarien eta gidarien kasuan). Kalitate oneko kopia eskaneatua onartzen da. Bertan, kirola edo kirolak zehaztuta agertu behar dira eta 3 hilabeteko indarraldia du, ematen denetik lizentzia izapidetzen den arte (dokumentu osoa eta irakurtzeko modukoa).

- **Nahitaezko beste dokumentazio bat**, aurreko denboralditik ez badago edo iraungita badago (NAN, egoitza-txartela, desgaitasun-ziurtagiria, etab.).

- Entrenatzaileentzako, fisioterapeutentzako, psikologoentzako... egiaztapen-titulua. Laguntzaileentzako eta delegatuentzako ez da nahitaezkoa.
- Sexu-delituen ziurtagiria kasu guztietarako (kirolarien kasuan izan ezik), ematen denetik lizentzia izapidetzen den arte 3 hilabeteko indarraldia duena.
- **“Kirolari” lizentziak ez direnak izapidetu ahal izateko, nahitaezkoa da 14 urte beteta izatea eta beharrezko dokumentazioa aurkeztea.*

Epaileak eta arbitroak:

- Autonomia-erkidegokoa, naziokoa edo nazioartekoa den eta zer urtetan eta lekutan lortu den egiaztatzen duen titulua.
- Sexu-delituen ziurtagiria kasu guztietarako, ematen denetik lizentzia izapidetzen den arte 3 hilabeteko indarraldia duena.
- ****Boccia eta slalomaren kasuan:*** denboraldi bakoitzean CNJABSaren jokabide-kodea aurkeztu behar du sinatuta.

14 urtetik beherakoak:

- Dagokion foru-aldundiaren baimena
- **Izapidetzeko unean 14 urte beteta izanez gero, ez litzateke nahitaezkoa izango).*

LIZENTZIA BERRIAK IZAPIDETZEKO PROZESUA

Lizentzia berrien alta-prozesu hori jarraitu beharko dute lehen aldiz izapidetzen direnek edo aurreko denboraldiarekin alderatuta ezaugarriren bat aldatzen dutenak:

1. Online aplikaziotik (www.kirol-lizentziak.com) edo web orritik (www.deporteadaptadoeuskadi.org), klubaren erabiltzailea eta pasahitza sartu ondoren, lizentzia eskatzen duen pertsonaren NAN/AIZ sartu beharko da LIZENTZIA ALTA atalean (**EGIAZTATU BEHAR BEZALA SARTU DELA NAN/AIZ ZENBAKIA**), eta "Hurrengoa" aukeran klik egin.

*14 urtetik beherakoa bada eta NAN/AIZik ez badu, "Adingabea" botoian klik egin eta familia-liburua erantsi beharko da.

NAN/AIZ IZANEZ GERO, ADINA EDOZEIN DELA ERE, LIZENTZIA NAN/AIZ ZENBAKIAREKIN IZAPIDETU BEHARKO DA.

2. Formularioa beteko da eremu guztiak betez eta argazkia erantsiko da. Ondoren, "GORDE BIDALI GABE" botoian klik egingo da, eta lizentzia "Aurreinskripzioa" egoeran geratuko da.

3. "SARRERA" ataletik, "Aurreinskripzioa" egoeran bilatuz, alta berrien zerrenda agertuko da. Lizentziaren datuak osatu eta dokumentuak zuzenak direla eta indarrean daudela berrikusi ondoren (GARRANTZITSUA DA BERRIKUSTEA NAN/AIZ ZENBAKIA ZUZENA DELA), BIDALI botoia sakatu beharko da lizentzia berriaren egoera "Ordaindu gabe" egoerara pasa dadin.

4. Lurralde-federazioak izapidetze-prozesua has dezan, klubak posta elektronikoz bidali beharko dio izapidetu beharreko lizentzien zerrenda.

5. **Lurralde-federazioak dokumentazioa berrikusiko du**, eta, behar bezala egonez gero, lizentzia berriaren eskaera baliozkotuko du, "Ordainduta" egoerara pasatuz. Ondoren, posta elektronikoz jakinaraziko dio Kirol Egokituaren Euskal Federazioari lizentzia zuzen dagoela eta izapidetzeko prest dagoela, FVDA-KEEFak tramitazioa amaitu dezan, "Tramitatuta" egoerara pasatuz.

***Eskabidean akatsen bat badago, lurralde-federazioa arduratuko da akatsa hautemateaz eta klubari jakinarazteaz**, hark beharrezko zuzenketak egin ditzan eta lurralde-federazioari berriro jakinaraz diezaion dagoeneko zuzendu dela. Lurralde-federazioak zuzen eta berrikusita, tramitazioa amaitzeko eskatu beharko dio FVDA-KEEFri.

6. **FVDA-KEEFak ostegunetan emango die alta aseguruan federatutako pertsonai**, eta emailaz bidaliko die lizentzia klubei. Kudeaketa horiek egiten diren bitartean, aplikazioan "Tramitatuta" gisa agertuko da.

7. Guztia posta elektronikoz fakturatu eta bidaliko zaio kirol-erakundeari.

LIZENTZIA BERRIEN DOKUMENTAZIOA

- **Formularioa**
- Indarrean dagoen **NAN/AIZren fotokopia** (BI ALDEETATIK).
- Indarrean dagoen **desgaitasun-ziurtagiria** (kirolarien kasuan).
- **Kirol-medikuaren ziurtagiria** (kirolarien eta gidarien kasuan). Kalitate oneko kopia eskaneatua onartzen da. Bertan, kirola edo kirolak zehaztuta agertu behar dira eta 3 hilabeteko indarraldia du, ematen denetik lizentzia izapidetzen den arte.
- Entrenatzaileentzako, fisioterapeutenzako, psikologoentzako... egiaztapen-titulua. Laguntzaileentzako eta delegatuentzako ez da nahitaezkoa.
- **Sexu-delituen ziurtagiria** kasu guztietarako (kirolarien kasuan izan ezik), ematen denetik lizentzia izapidetzen den arte 3 hilabeteko indarraldia duena.
- **“Kirolari” lizentziak ez direnak izapidetu ahal izateko, nahitaezkoa da 14 urte beteta izatea eta beharrezko dokumentazioa aurkeztea.*

Epailak eta arbitroak:

- Autonomia-erkidegokoa, naziokoa edo nazioartekoa den eta zer urtetan eta lekutan lortu den egiaztatzen duen titulua.
- **Sexu-delituen ziurtagiria** kasu guztietarako, ematen denetik lizentzia izapidetzen den arte 3 hilabeteko indarraldia duena.
- ****Boccia eta slalomaren kasuan:*** denboraldi bakoitzean CNJABSaren jokabide-kodea aurkeztu behar du sinatuta.

14 urtetik beherakoak (2009. urtean eta hurrengoetan jaiotakoak):

- Dagokion foru-aldundiaren baimena
- **Izapidetzeko unean 14 urte beteta izanez gero, ez litzateke nahitaezkoa izango).*

SALBUESPENAK EUSKAL LIZENTZIETAN BAKARRIK

- Desgaitasun-ziurtagirik ez badago, salbuespen gisa, lesioa eta/edo afektazioa zehazten duen txosten medikoa baliozkoa izango da, betiere hautagarritasun-mailaren barruan, eta 2 denboraldirako balioko du.
- Sailkapen funtzionala. Klubak aurre-sailkapena egingo du, eta ahal bezain laster berretsi beharko da. FVDA-KEEFak eskubidea du gaizki egindako edozein sailkapen berrikusteko. Nahitaezkoa da sailkapen hori zehaztea aplikazioko “klasea/puntuazioa” atalean.
- Pertsonaren identifikazio-agiria, pasaporte, NAN edo AIZ. Pasaportearekin batera errolda egon behar da, pertsona hori Europar Batasuneko ez bada.

BIGARREN KIROLAK

Bigarren kiroletarako edo kirol gehiagotarako prozesua aurrekoaren berdina izango da. “LIZENTZIA ALTA” atalean, pertsonaren NANA sartu eta “Hurrengoa” botoian klik eginez, pertsona horrek dagoeneko izapidetuta edo eskatuta duen lizentzia baten datuak dituen inprimakia agertuko da. Formulario horren gainean, eskatu nahi den 2. lizentziaren datu berriak beteko dira. Eta izapidetzea aurreko ataletan azaldutakoaren berdina izango da.

Ezin da bigarren kiroleko lizentziarik izapidetu Kirol-Medikuaren Ziurtagirian zehazten ez bada.

***KIROL-MEDIKUAREN ZIURTAGIRIAN KIROL GISA “EGOKITUTAKO KIROLA” AGERTZEA GOMENDATZEN DUGU, EDOZEIN MODALITATETAKO LIZENTZIA IZAPIDETZEKO BALIO IZANGO DUENA.**

FEDERAZIO-LIZENTZIEN INFORMAZIO OROKORRA

Kirol Egokituaren Euskal Federazioak astebeteko epea izango du lizentzia bat tramitatzeko lurralde-federazioak izapidetzeko/berritzeko eskaera egiten digun momentutik (dokumentazio guztia osorik eta indarrean badago). Kirol aseguruak ostegunetan bakarrik bidaltzen direla kontuan hartuta, parte hartu nahi den lehiaketaren data baino askoz lehenago tramitatzea gomendatzen da.

Lizentzia edo jolas-txartel bat izapidetzeko behar den dokumentazio guztia lizentzien aplikaziora behar bezala beteta igota badago, irakurtzeko moduan eta indarrean (sinadura, zigilu eta data guztiekin), ez da derrigorrezkoa izango Kirol Egokituaren Euskal Federaziora dokumentazioa fisikoki bidaltzea.

FEDERAZIO-LIZENTZIEN ERABILERA

Lizentziek eskubidea ematen dute lurralde-, autonomia- eta estatu-mailan antolatutako probetan lehiatzeko (lizentzia-motaren arabera), eta banakako kirol-aseguru baten estaldura izateko.

ERKIDEGOKO ETA ATZERRIKO KIROLARIENTZAKO LIZENTZIAK

ARAU OROKORRA

Europako Erkidegoko eta Europar Batasunetik kanpoko kirolarien edo atzerritarren lizentziak emateko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira eskabidearekin batera:

- a) Erkidegoko kirolari orok aurkeztu beharko du jatorrizko federazioaren baja.
- b) Europar Batasunetik kanpoko kirolari atzerritar orok jatorrizko federazioaren baja eta Espainian legeko bizilekua izateko baimena aurkeztu beharko ditu.

ZEHAZTAPENAK:

Lehenengoa.- Europar Batasuneko estatu kide bateko kirolariak

- Erregistroko ziurtagiria, Atzerritarren Erregistro Zentralean izena emanda dagoela edo izena emateko eskaera egin duela egiaztatzen duena, edo Europar Batasuneko herritarren senide izateko bizileku-txartela. (Europar Batasuneko herrialdeak: Alemania, Austria, Belgika, Bulgaria, Zipre, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Italia, Letonia, Lituania, Luxenburgo, Malta, Herbehereak, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Txekiar Errepublika, Errumania, Suedia eta Espainia. Europako Esparru Ekonomikoko herrialdeak: Islandia, Liechtenstein eta Norvegia).

Bigarrena.- Europako esparru ekonomikoari buruzko akordioan parte hartzen duen estatu bateko kirolariak (Europako Erkidegoarekin Akordioa duten herrialdeak: Suitza)

- Erregistroko ziurtagiria, Atzerritarren Erregistro Zentralean izena emanda dagoela edo izena emateko eskaera egin duela egiaztatzen duena, edo Europako esparru ekonomikoari buruzko akordioan parte hartu duen herritarren senidearen egoitza-txartela.

Hirugarrena.- Erkidegoz kanpoko kirolariak.

- Atzerritarren nortasun-txartela
- Bizileku-txartela indarrean.

*Euskal Lizentziaren salbuespenak ikusi "lizentzia berriak izapidetzeko prozesua" atalean

FEDERAZIO LIZENTZIA BESTE KLUB BATERA ALDATZEA

Lizentzia klub batetik bestera aldatu nahi duten federatuen kasuan, gehienetan sintonia onean izaten dela ikusten dugu, baina badaezpada, honako hau zehazten da:

- Aseguruaren kostuarekin ezin da ezer egin, galera da lehen klubarentzat eta onura bigarrenarentzat.
- Beste kirol batzuetan gertatzen den bezala, aldaketa hori egiteko, **LEHEN KLUBAK baja sinatu/baimendu** behar du. BIGARREN klubak agiri guztiak aurkeztu beharko ditu, alta berri bat balitz bezala.

LIZENTZIEN KOSTUA

Lizentzien kostua erantsitako dokumentuan kontsulta dezakezue.

LIZENTZIEN ORDAINKETA

Kirol lizentzien kudeaketa hobetzeko asmoz, FVDA-KEEFak lizentziak eta Txapelketetarako izen-emateak ordaintzeko sistema hau ezarri du.

FVDA-KEEFek fakturak egingo dizkizue hiru hilean behin, lehen aipatutako kontzeptuengatik, eta ordaintzeko bi modu eskaintzen dizkizuegu:

- FVDA-KEEFak igorritako banku-igorpena: fakturen guztizko zenbatekoaren ordainagiri bat igorriko da zuen kontu-zenbakira. Hamar egun lehenago jakinaraziko dizuegu bidali beharreko zenbatekoa, jakinaren gainean egon zaitezten eta onar dezazuen. Ordainagiriaren bat itzultzen bada, sortzen diren gastuak kontuaren titularren kontura izango dira.
- Banku-transferentzia: faktura jasotzen duen kirol-erakundeak FVDA-KEEFaren kontuan transferitzen edo sartzen du fakturen zenbatekoa(k), **faktura jaso eta hurrengo 15 egunen barruan. GARRANTZITSUA: Faktura jaso arte itxaron behar da ordainketa egiteko.**

Ordaintzeko modu hori aplikatzeko, erakunde bakoitzak baimena eman beharko digu "Lizentziak ordaintzeko modua" orria betez.

ASEGURUA

Asegurua **ALLIANZ**rekin kontratatzen da federatutako pertsona ororentzat.

Istripuren bat gertatuz gero, Allianz-ek ezarritako jarduketa-arauak bete behar dira. Istripu-protokoloa erantsita aurkituko duzue.

Aseguruak Kirol Egokituaren Euskal Federazioaren modalitateen batean aritzean gertatutako kirol-istripuak bakarrik estaliko ditu. Aseguruak ez ditu bere gain hartuko FVDA-KEEFkoak ez diren modalitateetako istripuak, ezta ohiko federazioetara transferituta daudenak ere (hipika, neguko kirolak, txirrindularitza, mendia, golfa, surfa, judoa, piraguismoa, mahai-tenisa...).

LIZENTZIAK EGUNERATZEA

Datuen aldaketagatik, galtzeagatik edo kirolariaren kategoria eguneratzeagatik beste lizentzia bat eskatzen bada, 6,00 euroko kostua izango du. Izapide hori lurralde-federazioari jakinarazi beharko zaio.

GAIKUNTZAREN OINARRIZKO TESTA-AZTERKETA MEDIKOA

Kirolariaren lizentzia eskatzearekin batera, dagokion azterketa medikoa egin behar da. Berrikuspen-eskaera lurralde-federazioen edo zerbitzu hori eskaintzen duten mediku-zentroen bidez egingo da.

BESTE BATZUK

Lizentziak izapidetzean datu horietako edozein ez izapidetzeak lizentzia-eskaera hori **ez tramitatzea** eta artxibatzea ekarriko du. Era berean, jakinarazten dizugu federatutako pertsona bakoitzak lizentzia bat eskatu behar duela egiten duen kirol-diziplina bakoitzeko.

Inprimakian jaso beharreko sinadura guztiak nahitaezkoak dira: eskatzailearena, klub edo kirol erakundearena (halakorik badago) eta, jakina, Lurralde Federazioarena (sinadura horrekin informazioa eta dokumentazioa bisatutzat emango ditu).

JOLAS-TXARTELAK

Kirol egokituko jolas-txartelek eskubidea ematen dute banakako kirol-asegurua estaldura izateko (ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretua, nahitaezko kirol-asegurua gutxienezko prestazioak zehazten dituen, oinarri hartuta).

Ez du esan nahi kirol egokituaren federazioetan integratuko denik.

Ofizialak ez diren kirol-jardueretan parte hartzeko edo zerbitzu jakin batzuk lortzeko (kirol-asegurua, adibidez) baino ez dute aukera ematen.

Agiri hori lortzea ez da federazio-lizentzia bat, eta, beraz, ez du lehiaketa ofizialetan parte hartzeko eskubiderik ematen.

Hauek dira horiek lortzeko kudeaketak:

- Kirol-lizentziaren inprimakia bete eta sinatu. DERRIGORREZKOA DA BI ORRIALDEAK BIDALTZEA, DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGE ORGANIKOAREN ATALA BARNE. DBLOaren ATALIK GABE EZ DA LIZENTZIARIK IZAPIDETUKO.
- NANaren, pasaportearen edo bizileku-txartelaren kopia erantsi. **14 urtetik beherakoa bada eta NAN/AIZ ez badu, familia-liburua erantsi beharko da.*
- Desgaitasun-ziurtagiriaren kopia erantsi (kirolariak bakarrik).
- Sexu-delituen ziurtagiria erantsi (kirolariak izan ezik)

*****Kirolaria” ez den beste jolas-txartel bat izapidetu ahal izateko, NAHITAEZKOA da 14 urte beteta izatea.**

Jolas-txartel bat izapidetzeko eskaerak egin behar duen prozesua lizentzia baten antzekoa da (*ikus dokumentu honetan bertan gorago aurkituko dituzuen lizentziak berritzeko/izapidetzeko atala*).

Kirolari batek kirol-diziplina bat baino gehiago praktikatzen badu, MULTIKIROLA adierazi behar da alta horretan.

Hona hemen FVDA-KEEFaren modalitateen eta diziplinen zerrenda:

Xakea	Futbola	Eskubaloia
Saskibaloia	Euskal pilota	Errugbia S.R.
Igeriketa	Gimnasia	Hockey S.R.
Boccia	Goalball	Boleibola
Slalom-a	Halterofilia	Tiro olinpikoa (bakarrik FEDC)
Atletismoa	Badmintona	

ESPAINIAKO FEDERAZIOETAN HOMOLOGATUTAKO LIZENTZIAK

Espainiako federazioren batean lizentzia homologatu bat izapidetzeko, Euskal Lizentzia bat izapidetzeko egin beharreko urrats berberak egin behar dira, pausu gehigarri batekin, FVDA-KEEFak, lizentzia izapidetu ondoren, dagokion FFEera bidali behar duelako, homologatua izan dadin.

Espainiako federazio bakoitzak dokumentazio espezifiko bat eskatzen du, eta dokumentazio hori aplikaziora igo beharko da, Euskal Lizentzia baterako eskatutako dokumentazio guztiarekin batera:

- FEDDI (Adimen-desgaitasuna)

- o Familia-baimena (kirolarien kasuan bakarrik)
- o DBEO federatuak
- o DBEO irudiak, webgunea eta sare sozialak

- FEDDF (Desgaitasun fisikoa)

- o Datuak lagatzea
- o* KIROLARIAREN LIZENTZIA BERRI BAT FEDDF-N HOMOLOGATZEKO, NAHITAEZKOIA IZANGO DA BEHIN-BEHINEKO SAILKAPEN FUNTZIONALAREN ESKAERA EGITEA. Horretarako, klubak FVDA-KEEFra bidali beharko du posta elektronikoz bidez beharrezko dokumentazio guztia (txosten mediko xehatuak, argazkiak, bideoak...). FEDDFk behin-behineko sailkapen funtzionala eman arte, lizentzia ez da homologatuta egongo.*
- o* FEDDFk ez du kirolari fisiko independenterik onartzen, kirol-erakunde baten babespean egon behar dute.*

- FEDPC (Garuneko Paralisia eta HKZ)

- o CNAJBS jokabide-kodea (arbitroen eta epaileen kasuan bakarrik)
- o* FEDPCk ez du kirolari fisiko independenterik onartzen, kirol-erakunde baten babespean egon behar dute.*

- FEDC (Ikusmen-desgaitasuna)

- o ONCEko afiliazio-txartela edo txosten oftalmologikoa. OFTALMOLOGIA-TXOSTENA URTERO EGUNERATU BEHARKO DA.
- o Renferen Urrezko Txartela
- o Irudia lagatzea
- o Datuen babesa
- o Jokabide-kodea
- o* Gidarien kasuan, nahitaezkoa izango da kirol-medikuaren ziurtagiria.*
- o* Xake-lizentziak kirol-medikuaren ziurtagiria aurkeztetik salbuesten dituzte.*

- FEDS (entzuteko desgaitasuna)

- o Audiometria/Timpanometria (kirolarien kasuan bakarrik)

Lizentziak ostegunetan homologatuko dira, kirol-aseguruak bidali eta klubei lizentziak posta elektroniko bidez bidaltzen zaizkien egunean.

Homologazioekin zalantzarik izanez gero, jarri harremanetan zuzenean Kirol Egokituaren Euskal Federazioarekin.

KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE INFORMAZIO BAT

FEDDF-N HOMOLOGATUTAKO GURPIL-AULKIKO SASKIBALOI-LIZENTZIEN ESPEZIALITATEA

Kasu honetan, lizentzia eskatzeaz gain, nahitaezkoa da FEDDFri **Joko-Fitxa** eskatzea. Kudeaketa hori zuzenean egiten dute klubek FEDDFrekin, lehiaketa hasi baino 15 EGUN lehenago.

Joko-fitxa kirolariaren identifikazio-dokumentu pertsonala da, hainbat denboralditarako balio duena.

Gogorarazten da joko-fitxetarako eskatutako aldaketek FEDDFren federazio-tarifetan adierazitako kostua izango dutela.

Lizentzia eman zaien kirolariei lizentzia dutela egiaztatzen duen txartela bidaliko zaie, honako kontzeptu hauekin:

- Izen-abizenak
- Kirolariaren lizentzia-zenbakia
- Kategoria
- Kide den kluba/taldea edo, bestela, federazioa edo lurralde-ordezkaritza
- Nahitaezko mediku-lizentziaren/-aseguruaren iraungitze-data

Gogorarazten dizuegu derrigorrezkoa dela lehiaketetara lizentzia eta joko-fitxarekin joatea.

OHARRA: hemen azaldutako informazioak aldaketak izan ditzake Espainiako Federazioetatik bidaltzen dituten informazioaren arabera.

Euskal Federakuntzak egindako datuen tratamenduari buruz informazioa.

Datuak babesteko araudian (Datuak Babesteko 2016/679 Europako Erregelamendua (EB) eta Datuak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa) xedatutakoaren arabera, interesdunak emandako datu pertsonalak Kirol Egokituaren Euskal Federazioak tratatuko ditu, tratamenduaren arduradun gisa.

Datuak interesdunak berak eman ditzake, edo pertsona horrek legitimatutako hirugarrenen bidez, Kirol Klubek edo Lurralde Federazioek bezala.

Hauek dira tratatutako helburuak: federazio-lizentziaren kudeaketa eta izapidetzea eta lizentzia horri dagozkion eskubideak eta betebeharrak; kirol-lehiaketak kudeatzea eta antolatzea; federazio-organoak kudeatzea eta horietan parte hartzea; prestakuntza-zerbitzuak ematea; kirolean prebentzioa, kontrola eta zehapena ezartzea; kirola sustatzea eta ordezkatzeta; eta webgunea eta sare sozialak kudeatzea.

Tratatutako datuen kategorietan sartzen dira kategoria orokorreko datuak (identifikatzaileak, kirol-, banku- eta ekonomia-inguruabarrak, ahotsa eta irudia) eta kategoria berezikoak (adingabeenak, osasunekoak, aurrekari penalak eta kirol-arau-hausteei buruzkoak).

Legitimazio-oinarri nagusia Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena, martxoaren 30ekoa 2/2023 Legea, Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuak eta Federazioaren Estatutuak eskuordetutako interes publikoko misioa da. Legezko betebeharrak betetzea ere izan daiteke, beste araudi batek zehazten duen kasuetan. Azkenik, bereziki babestutako datuetarako baimena ere izan daiteke (adingabeen datuak, adibidez), baita berariaz onartu dituzun beste helburu batzuetarako ere.

Datuak Federakuntzaren zerbitzuak emateko eta legezko betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren erakundeei jakinarazi edo laga ahal izango zaizkie: kirol-klubei, lurralde-federazioei eta Espainiako Errege Federazioei, aseguru-etxeei, erlazionatutako erakundeei (UFDV-EKFB, esaterako), banku-erakundeei eta ordainketa-pasabideei, gaian eskumena duten administrazio publikoei (Eusko Jaurlaritzako Kirol Zerbitzua, Kirolaren Euskal Kontseilua, Batzorde Olinpikoa, Kirolaren Kontseilu Nagusia, Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia, etab.) eta komunikatzeko legezko betebeharra duten beste erakunde publiko batzuei (epaitegiak eta auzitegiak, segurtasun-indar eta -kidegoak).

Hasiera batean, ez da datuen nazioarteko transferentziarik egiten, nazioarteko lehiaketak kudeatzeko eta antolatzeko beharrezkoa denean izan ezik; kasu horretan, Espainiako Errege Federazioak egingo du transferentzia lehentasunez.

Datuak federakuntza-lizentzia indarrean dagoen bitartean mantenduko dira, eta, ondoren, kopia minimizatu eta blokeatu bat gordeko da, hala eskatzen denean lizentzia berraktibatzeke eta federakuntzaren legezko betebeharrak betetzeko, hala nola, Estamentu eta Lehiaketen Liburuaren artxibo historikoa.

Kirol Egokituaren Euskal Federazioak segurtasun-neurri tekniko eta antolakuntzakoak hartu ditu informazioaren konfidentzialtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna babesteko. Federakuntzak konpromisoa hartzen du bere langile guztiak gai horretan trebatzeko, eta konfidentzialtasun-konpromiso bat sinatzeko, sekretu profesionala gordetzeko betebeharra jasoko duena. Era berean, araudian jasotako printzipio eta betebeharrak guztiak errespetatzeko konpromisoa hartzen du, bai eta betetzea bermatzeko hartutako neurriak aldizka berrikusteko ere.

Interesdunek edozein unetan dute eskubidea araudian aurreikusitako eskubideak baliatzeko, eta, bereziki, beren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeke eta tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko eskatzeko. Horretarako, sinatuta dagoen mezu elektronikoa bat

bidali beharko dute, identifikazio-agiriarekin batera, eta Datuak Babesteko ordezkariak hilabeteko epean erantzungo dio eskaerari. Bere eskaerari behar bezala erantzun ez zaiola uste badu interesadunak, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazioa aurkezteko eskubidea du.

Kirol-kluben eta Lurralde-federazioen betebeharrak

Federakuntzan parte diren kirol-klubek eta lurralde-federazioek, halaber, datuen babesa betetzen dela bermatu behar dute, egiten dituzten tratamenduen arabera eta aplikatzekoa den araudian aurreikusitako betebeharren arabera.

Pertsona interesdunen federazio-fitxa inskribatzeko eskabidea egiteko gaitutako kirol-klub eta lurralde-federazio guztiek, gainera, Federakuntzak egiten dituen tratamenduei buruzko datuen babesari buruzko informazioa eman beharko diete pertsona horiei. Federazioak eskura jarriko die informazio hori, eta berariaz jaso beharko dute interesdunen sinadura (edo gurasoen edo tutoreen sinadura, adingabeen kasuan), informazio horretan aurreikusitako berariazko baimenekin batera. Ondoren, interesdunaren federazio-fitxan sinadurari buruzko informazioa erantsi beharko dute, eta fitxa horiek leku seguru batean zaindu, pertsonaren federazio-harremanak irauten duen bitartean. Informazio hori Euskadiko Federakuntzak egindako datu pertsonalen tratamenduetara mugatzen da, eta ez ditu Klubak egindakoak barne hartzen, eta ez dituzte horien datuak babesteko gainerako erantzukizunak salbuesten.

Gainera, Kirol Klubek eta Lurralde Federazioek bermatzen dute datu pertsonaletarako sarbidea duten beren taldeko langile guztiei gaiari buruzko prestakuntza eman zaiela eta konfidentzialtasun-konpromiso bat sinatu dutela, sekretu profesionala gordetzeko betebeharra jasotzen duena.

Kirol Klubek eta Lurralde Federazioek beren-beregi bermatzen dute Kirol Egokituaren Euskal Federazioa artikulua honetan edo Klubak datuak babesteko araudian aurreikusitako betebeharrak ez betetzeagatik izan ditzakeen arau-hausteen erantzule izango direla, eta Federakuntzak ez duela erantzukizun zibil, penal edo administratiborik izango.



Kirol Egokituaren Euskal Federazioa
Federacion Vasca de Deporte Adaptado

Vanessa Lucio Arpón
Lehendakaritza
Kirol Egokituaren Euskal Federazioa

LICENCIAS DE FVDA-KEEF 2025-2026

ALTA DE CLUB FVDA: 55,00 €

TARJETA RECREATIVA: 38,00 €

Licencias vascas



Seguro deportista	25,00
Federación Territorial	6,60
Federación Vasca	11,40
TOTAL	43,00

Seguro auxiliar, guía, entrenador/a, etc	25,00
Federación Territorial	6,60
Federación Vasca	11,40
TOTAL	43,00

Segundos deportes

Seguro deportivo	0,00
Federación Territorial	6,60
Federación Vasca	11,40
TOTAL	18,00

Licencias homologadas FEDC



Seguro deportista	25,00
Federación Territorial	6,60
Federación Vasca	11,40
Homologación FEDC	0,00
TOTAL	43,00

Seguro auxiliar, guía, etc	25,00
Federación Territorial	6,60
Federación Vasca	11,40
Homologación FEDC	0,00
TOTAL	43,00

Segundos deportes

Seguro deportivo	0,00
Federación Territorial	6,60
Federación Vasca	11,40
Homologación FEDC	0,00
TOTAL	18,00

Licencias homologadas FEDPC



Alta de club (solo si participa en Cptos.)	38,00
Seguro deportista	25,00
Federación Territorial	6,60
Federación Vasca	11,40
Homologación FEDPC	10,00
TOTAL	53,00

Seguro auxiliar, guía, entrenador/a, etc	25,00
Federación Territorial	6,60
Federación Vasca	11,40
Homologación FEDPC	10,00
TOTAL	53,00

Segundos deportes

Seguro deportivo	0,00
Federación Territorial	6,60
Federación Vasca	11,40
Homologación FEDPC	10,00
TOTAL	28,00

() no se admiten licencias de deportistas independientes*

Licencias homologadas FEDDF



Alta de club	50,00
Seguro deportista	25,00
Federación Territorial	6,60
Federación Vasca	11,40
Homologación FEDDF	30,00
TOTAL	73,00

Seguro auxiliar, guía, etc	25,00
Federación Territorial	6,60
Federación Vasca	11,40
Homologación FEDDF	40,00
TOTAL	83,00

Segundos deportes

Seguro deportivo	0,00
Federación Territorial	6,60
Federación Vasca	11,40
Cuota FEDDF	
deportista	20,00
técnico	20,00
TOTAL	38,00

Renovaciones posteriores al 01/01/2026

Deportista	85 €	2º deporte	48 €
------------	------	------------	------

Licencias homologadas FEDDI - 2026



Alta club FEDDI (participación)	150,00
Seguro deportista	25,00
Federación Territorial	6,60
Federación Vasca	11,40
Homologación FEDDI	30,00
TOTAL	73,00

Seguro auxiliar, guía, entrenador/a, etc	25,00
Federación Territorial	6,60
Federación Vasca	11,40
Homologación FEDDI	30,00
TOTAL	73,00

Segundos deportes

Seguro deportivo	0,00
Federación Territorial	6,60
Federación Vasca	11,40
Homologación FEDDI	30,00
TOTAL	48,00

Licencias homologadas FEDS



Alta de club	20,00
Seguro deportista	25,00
Federación Territorial	6,60
Federación Vasca	11,40
Homologación FEDS	10,00
TOTAL	53,00

Seguro auxiliar, guía, etc	25,00
Federación Territorial	6,60
Federación Vasca	11,40
Homologación FEDS	10,00
TOTAL	53,00

Segundos deportes

Seguro deportivo	0,00
Federación Territorial	6,60
Federación Vasca	11,40
Homologación FEDS	10,00
TOTAL	28,00

Renovaciones fuera de plazo 15-feb-2026

50% recargo

DOCUMENTACIÓN LICENCIAS

LICENCIA VASCA (FVDA-KEEF)	DISCAPACIDAD AUDITIVA (FEDS)
➤ DEPORTISTA ▪ DNI/NIE ▪ Certificado discapacidad ▪ Certificado médico deportivo (CMD) ➤ OTRO/A ▪ DNI/NIE ▪ Certificado delitos sexuales ▪ Título (si es necesario)	➤ DEPORTISTA ▪ DNI/NIE ▪ Certificado discapacidad ▪ Certificado médico deportivo (CMD) ▪ Audiometría/Timpanometría ➤ OTRO/A ▪ DNI/NIE ▪ Certificado delitos sexuales ▪ Título (si es necesario)
DISCAPACIDAD FÍSICA (FEDDF)	DISCAPACIDAD INTELECTUAL (FEDDI)
➤ DEPORTISTA ▪ DNI/NIE ▪ Certificado discapacidad ▪ Certificado médico deportivo (CMD) ▪ Cesión datos FEDDF ➤ OTRO/A ▪ DNI/NIE ▪ Certificado delitos sexuales ▪ Título (si es necesario) ▪ Cesión datos FEDDF	➤ DEPORTISTA ▪ DNI/NIE ▪ Certificado discapacidad ▪ Certificado médico deportivo (CMD) ▪ Autorización familiar (si es necesario) ▪ RGPD federados/as ▪ RGPD imágenes, web y RRSS ➤ OTRO/A ▪ DNI/NIE ▪ Certificado delitos sexuales ▪ Título (si es necesario) ▪ RGPD federados/as ▪ RGPD imágenes, web y RRSS
DISCAPACIDAD VISUAL (FEDC)	PARÁLISIS CEREBRAL (FEDPC)
➤ DEPORTISTA ▪ DNI/NIE ▪ Certificado discapacidad ▪ Certificado médico deportivo (CMD) ▪ <i>*Excepto ajedrez</i> ▪ Tarjeta ONCE o Informe Oftalmológico ▪ Tarjeta dorada Renfe ▪ Cesión imagen FEDC ▪ Protección datos FEDC ▪ Código conducta FEDC deportistas ➤ OTRO/A ▪ DNI ▪ Certificado delitos sexuales ▪ Título (si es necesario) ▪ Certificado médico deportivo (CMD) ▪ <i>*Para "Técnico Guía"</i> ▪ Cesión imagen FEDC ▪ Protección datos FEDC ▪ Código conducta FEDC personal	➤ DEPORTISTA ▪ DNI/NIE ▪ Certificado discapacidad ▪ Certificado médico deportivo (CMD) ➤ OTRO/A ▪ DNI/NIE ▪ Certificado delitos sexuales ▪ Título (si es necesario) ➤ ÁRBITRO/A-JUEZ/A ▪ DNI/NIE ▪ Certificado delitos sexuales ▪ Título ▪ Código de Conducta CNAJBS
TARJETA RECREATIVA (TR)	
➤ DEPORTISTA ▪ DNI/NIE ▪ Certificado discapacidad	➤ OTRO/A ▪ DNI/NIE ▪ Certificado delitos sexuales ▪ Título (si es necesario)

***Para deportistas menores de 14 años es obligatorio presentar la Autorización de la Diputación correspondiente (excepto TR)**